

EMAZTEA OIHENARTEK BILDU ATSOTITZETAN

Jean HARITSCHELHAR
euskaltzainburua
U.R.A. 1055 C.N.R.S., Bordeaux III

Zer ote da emaztea gizonarentzat? Gauza ala presuna? Laguna ala etsaia? Ez ote da izan gizonaren asmu edo amentsetan deabruak bere menpean daukan norbait, gizonaren galgarri? Eba, paradisuari, izan da Adan-i Jainkoak eman zion laguna, hark berak galarazi zuela senarra sugearen aholkuak onartuz. Adan, Eba, deabrua sugearen itxurapean, fruitu debekatua, paradisu galdua. Nor da hobendun? Eba.

Geroztik, gizonak bere baitan dauka emaztearenganako mesfidantza, beldurra berdin eta noiztenka mespretxua. Abere baten pare dela emaztea irakur dezakegu espainol atsotitzetan nola frantses erran zaharretan eta gizonak behar du behar den bezala hezi.

- *La burra y la mujer apaleadas quieren ser.*
- *La mula y la mujer a palos se han de vencer.*
- *Una buena cabra y una buena mula y una buena mujer son muy malas bestias las tres.*
- *El lunes a la parla, el martes a paliza, el miércoles a puño en rostro, el jueves a cocea, el viernes a la greña, el sábado cierne y masa, el domingo descansa.*

Eta dio Correas-ek: «Dice lo que sucede a algunas mujeres por hablar y holgar, que sus maridos las castigan a puñete, palo y cozo».

Ez balinbada on haurren egiteko, abere bilaka daiteke emaztea:

- *La mujer que no pare y empreña, darla de palos, cargarla de leña.*

Ez du iduri bertzerik pentsatzen dutenik frantsesek. Haiek ere parekatzen dituzte emazteak eta abereak, haiek ere aise darabilte makila:

- *Bon cheval, mauvais cheval veut l'éperon,
Bonne femme, mauvaise femme veut le baston.*
- *Dame bien dressée, mule enchevestrée.*

• *Une bonne femme, une bonne mule, une bonne chèvre sont trois méchantes bestes.*

• *Il n'y a femme, cheval, ne vache
Qui n'ait toujours quelque tache.*

Urrunago doaz frantsesak, Jainkoari laguntza eskatzen diotenean: Alargun-
tzea da askatasunaren aurkitzea: eskerrak Jainkoari!

• *A qui Dieu veut aider, sa femme meurt.*
• *Dieu ayme l'homme quand il lui oste sa femme n'en sachant plus que
faire.*

Alargunaren nigarra ez da iraunkorra:

• *Deuil de femme morte
Dure jusqu'à la porte.*

Euskal errefracuetan mespretxuz bete hatzeman dudak bakarria hauxe da:
Emak horari ezurra eta emazteari gezurra (500)

Aspaldidanik heldu zaigu jende ezkonduen artean gizona dela nagusi eta
bere menpean daukala emaztea.

Jaun Done Paulok erromatarrei eginikako epistolari hauxe dio:

«Alabainan senharraren meneko den emaztekoa, senharra bizi deno legearen
lokharrietan da; hiltzera heldu bada ordean senharra, haren legearen azpitik
atheratzen da emaztea.

Beraz senharra bizi duelarik, lohi deithua izanen da, bertze batekin egon
bada; bainan senharraren legetik atheratu da, hiltzera ethorri bada hura, haletan
non ez baita lohi bertze batekin ezkonduerik ere».

(Erromatarrei. VII. kapitulua)

Oso ezaguna da ere ephesoarrei eginikako epistolari Paulok dioena, garai
batean ezkontzako mezetan irakurtzen zelakotz:

«Emazteak beren senharrei Jaunari bezala izan beitez ethordun; zeren
senharra baita emaztearen burua, hala nola Kristo Elizaren burua baita, haren
gorputzaren salbatzailea».

(Ephesoarrei. V. kapitulua)

Hortik dator, giro horretan biziz, euskal erran zaharra:

406. *Senhar duenak jaun du.*

Eba-ren ildotik joanez, agertuko dira errefracuetan emaztearen akatsak,
izan dadin neska gazte, amorantea edo ohaide, emagalduek edo puta, atso zahar.

Baina badago ere emaztearen bertze itxura bat. Paradisua galdurik emazte-
rengatik, paradisarako bidea berriz aurki daiteke Kristo-ri jarraikiz, eredu gisa
hartuz Maria, Kristoren ama. Horrek ez du tonarik ukanen, hau da garbia,
ona, distiranta, emazte guzien eredu. Emakumearen bi itxura horiek aurkitzen
dira atsoitzetan.

I - EBA-REN ALABA

I - 1. Ezkontza

Nola ez aurki Eba-ren alabetan jaidura txarrak, galgarriak gizonarentzat egun batez behar balinbadu emazte bat hautatu eta harekin eraman bizia.

465. *Urhea, emaztea eta oihala*
Eguargiz bezi har eztizala

Urhea faltsua izan daiteke, oihala gaizki ehuna, hortakotz egunez behar dira pizatu edo ikusi.

Atsotitz honen oihartzunak badira frantsesez edo espainolez:

- *La mujer y la tela no le cates a la candela*
- *La mujer y la tela no se ha de escoger a la candela*

Aldiz bada bertze bat dioena:

- *La mujer y la tela a la candela.*

baina Correas-ek idazten du ondoan «cuando se vende» bertzeak direlarik «cuando se compra».

Bertze batek parekatzen ditu emaztea, arnoa eta zaldia:

- *Mujer, vino y caballo, mercaderías de engaño.*

Frantsesez, espainolaren parekoa, oihala eta emaztea biltzen dira atsotitz batean:

- *Toille, femme layde ny belle*
Prendre ne doit à la chandelle.

Euskal erran zaharrak aipatzen du urrea, bertzek egiten ez dutena. Horrek salatzen ote du balio haundiagokoa dela emaztea euskaldunarentzat, frantses edo espainolentzat baino?

Ezkontza, gauza serioa da gizonarentzat. Orduan, ez du balio urrunegi joatea; hobe da herrian berean edo auzotegian hautatzea neska ezagun bat, espainol errefrau batek dioenez:

- *Mujer y rocino, tómalo del vecino.*

Arriskuak haundiak dira urrunera ezkontzen delarik. Edozein neskame edo sehek anderearen fama har dezake:

473. *Urruneko neskak anderauren hots.*

Hala gertatzen zen Baigorriin, omen:

66. *Baigorriin baxera lurrez*
Nik haragei nuenean urrez

Aholku gisa derasa atsotitz zaharrak:

675. *Urrunera dohana ezkontzera,
Edo da enganatu edo doha enganatzera.*

Gauza bera edo bertsoa errepikatzen delarik hala espainolez nola frantsesez:

- *Moza hermosa y con dinero, yo forastero
y a mí me la dan: trápala, tranpalán*

Hurbilagoa da frantses errefraua:

- *Qui loing se va marier
Sera trompé ou veut tromper.*

I - 2. Ezkontzaren biharamuna

Gizonarentzat edo neskarentzat ezkont-aintzineko denbora zorionsua zitekeen. Ezkontzaren ametsa egiten bazuten ere, ez zekiten nolakoa izanen zen biharamuna. Ez zuketan errefraua ezagutzen:

155. *Ezkonteguna, aise izanaren biharamuna.*

Lehenago ez ziren ezkontzak egiten elgar maitatzen zutelakoan. Ez ziren hain usu amodiozko ezkontzak eta gehienetan ez zeukaten biharamun goxorik.

467. *Urthaur dira amorez ezkontzea eta urrikitzea.*

Holako zerbait pentsatzen zen Frantzian:

- *Qui en haste se marie, à loisir se repend.*
- *De jeune marié ménage malotru.*

pentsa daitekeela, lasterregi edo gazteegi ezkonduz elgar maite zutelakoaren seinalea dela.

Holakoak badira ere Correas-ek dakartzanak:

- *Casar y mal día, todo en un día.*
- *Casarte has, y gozarás
de los tres meses primeros
y después desearás
la vida de los solteros.*
- *Casado por amores, casado con dolores.*

Bertze arrisku batzuk badira, hala nola bertze klase bateko emaztearekin ezkonduz edo emazte dirudun batekin ezkontzen delarik gizona, dotearengatik.

135. *Emazte har dezana handitarik,
Eztate etxean griña gabetarik.*

136. *Emaztea hartzen duena ezkontsari hutsa gati,
biharamuna du dolu eguna, gaitz darraikonagati*

Emaiten dut hemen Oihenarten itzulpena:

«Celui qui choisit sa femme par la seule considération de son dot, s'en repent dès le lendemain à cause du mal qui lui en revient».

Alabaina, «ezkontsaria» da dotea eta ez Txillardegi-k dioen bezala «sexu eskubideak».

• *Mujer de cien mil maravedis y marido de tres blancas* delako errefracuan zenbakiek argi eta garbi adierazten dute zer ezkontza mota egin den.

Ez da hobeki ezkontz gaiak pobreak direlarik:

521. *Hasak direnean elg'ezkontzeiak
nekearenak dirat'ezteiak.*

«On fait les noces du travail ou de la nécessité
lorsque tous les deux mariés sont sans commodité»

I - 3. Emaztearen akatsak

Gero deritzan liburuan Axular-ek aipatzen du lehenik lehenbiziko bi kapituluetan alferkeria, jakinik alferkeria dela bizio guzien ama.

- *alferkeria*

122. *Eder, auher.*

Nahiz ez dakigun euskaraz emakumeentzat edo gizonentzat egina den atsotitz hau, irakurtzen delarik Oihenarten itzulpena ez da gehiago dudarik.

«La belle est d'ordinaire fainéante».

Alferkeria da akatsik haundiena. Barkatuko zaio zer nahi edozeini, baina ez alfer izaitea, lan anitz bazelakotz baserrietan.

268. *Joanetak zaia oihal mehez, jakia ekosariz, salda ebez.*

Joan gaiten Oihenarten itzulpenera hobeki ulertzeko zer erran nahi duen atsotitz horrek.

«Jeannette a sa robe de drap fin, sa pitance c'est de la fève, son potage maigre et tanné comme l'eau de lessive.»

Oihal lodiz egiten ziren jauntziak lehenago eta ez du behar den bezala irun eta ez du denbora haundirik iragaiten sukaldaritzan: alferraren seinalea.

Gordinagoak dira espainol erran zaharrak:

- *Mujer ociosa no puede ser virtuosa.*
- *Mujer no hacendosa, o puta o golosa.*
- *La mujer que poco hila siempre trae mala camisa.*

Azken honen parekoa frantsesez:

- *Femme qui envy file porte chemise vile.*

Bertze biak biltzen ditu honek

- *Fille oisive*
A mal pensive,
Fille trop en rue
Tost perdue.

Alferra izanez, edo leihoan edo kanpoan iragaiten du denbora emazteak. Emazte ibiltariaren kontrako atsotitzak nasaiki agertzen dira.

- *La mujer en la casa y el hombre en la plaza.*
- *La mujer, la pierna quebrada y en casa.*

Frantsesez dio errefrau batek:

- *Fille fenestrière ou trottière*
Rarement bonne ménagère.

Badira halakoak Oihenartek bildu dituen atsotitzetan, baina oiloaren metaforaz apainduak.

357. *Oiloak eta emazteak galtzen du sobera ebitteak.*

- *La mujer y la gallina por andar se pierde aina.*
- *Fille qui trotte et géline qui vole de légier sont admirées.*
- *Fille qui trotte et poule qui vole sont facilement enlevées.*

Parekoak dira errefrauak izan dituen euskaraz, espainolez edo frantsesez. Non asmatua lehenik? Nondik etorria?

358. *Oilo ebildari, axeriaren janhari.*

Ez da dudarik oilo eta azeri hitzen pean edozein euskaldunek badakiela emazte eta gizon ulertu behar dela ere.

551. *Axeria predikatzen denean ari,*
gogo emak eure oiloari.

Predikatze horrekin ageri da metafora hutsean gaudela eta kontuz ibili behar dutela senarrek edo oilarrek. Metafora beraz baliatu zen Axular aipatzen zuelarik Apama, Zyro enperadorearen amorantea, zioelarik: «Amorantea zen nabusi: no zen tho; emaztea gizon, oilloa oillar».

Ibiliaren ibiliz erabilia izan daiteke. Holako zerbait adierazten du 331. atsotitzak.

331. *Neska erabilia asturutsu.*

Ez du itzulpenik egin Oihenartek (?). Halere erranen dugu neska gizakoia edo gizonetan dabilena miserableki bizi dela, emagaldu gisa.

- *Moza ventanera o puta o pедера.*
- *Mujer en ventana o puta o enamorada.*
- *La mujer que a la ventana se pone de rato en rato quiere venderse barato.*

Frantsesez oroitaraziko dut jadanik aipatu dudan atsotitza:

- *Fille fenestrière ou trottière*
Rarement bonne ménagère

- *aldakortasuna*

Aise aldatzen dela emaztea gauza ezaguna da. Hala diote erran zaharrek eta hedatuenerarik den iritzia da.

225. *Hegoa iduri du emazteen gogo.*

Hain zuzen hautatu da hegoa, haize beroa, aise aldatzen dena eta euria dakarrena gero.

Honen oihartzuna da espainiolez

- *Mujer, viento y ventura, presto se muda.*
- *Mujer, viento, tiempo y fortuna presto se muda.*

eta frantsesez:

- *L'esprit des femmes est léger comme le vent de midy.*
- *Temps, vent, femme, fortune,*
- *Tourment et changent comme lune.*

edo

- *Femme est un cochet à vent*
Qui se change et mue souvent.

Oroit daiteke ere Rigoletto operan entzuten denaz italieraz:

La donna e mobile

Aldakortasun horrek bere arriskuak baditu jende ezkonduentzat, bereziki emaztea ederra delarik. Edertasuna galgarri izan daiteke:

592. *Ezta deuskari edertarazuna*
lagun ezpadu ontarazuna.

Orduan senarrak zaindu behar du emaztea:

579. *Emazte ederra duena etxean, etxea etsai-lurrean eta mahastia karrikal-dean, ezta koienta gabe bihotzean.*

Emaztea, etxea, mahastia, balio haundikoak gizonarentzat, atxiki eta zaindu behar direnak.

- *Les femmes fenestrières et les terres de frontières sont mauvaises à garder.*
Aitorpen bertsoa egiten du frantses erretratuak eta urrunago doa honekin:
- *La femme a semence de cornes.*

hala nola Correas-ek dakarren:

- *La mujer que a dos quiere bien, Satanás que la lleve, amen.*
- *La mujer hermosa quita el nombre a su marido.*

Adardun nahi balinbadu izan gizonak aski du egitea errefrau batean agertzen dena:

137. *Emaztearen gaitzez zikira zedina adarreki ehortz zedin.*

Segitzen du Oihenartek, idatziz: «Refrau haur atera da Ilhartiz edo Epitafio hontaric.

Heben dago, ber'adarreki, etzina, emaztearen gaitzez xikira zedina, eta itzultzen du:

Ci-git, avec ses cornes, le pauvre corps sans âme,
D'un qui se fit châtrer pour déplaire à sa femme»

Epitafioak, bere errimarekin, erakusten du frantsesetik datorrela.

- *gormandiza edo sabelkeria*

Bekatu kapitaletan sartzen da alferkeria bezala. Aipatuko dugun erran zaharrak aditzera emaiten du sehi edo neskameek badakitela beren buruaren zaintzen:

336. *Nihaur ninzan gelari
ene uzkiari bazekion nabari.*

Itxuraz ikus zitekeen on egiten ziola janariak.

Espainola bortitzagoa da:

• *La mujer golosa o puta o ladrona.*

- *urgulua*

Hau ere bekatu kapitala. Hemen, metaforaren bitartez aditzera ematen du zer den urgulutsua, gizon ala emazte, baina *izorra* eta *erdi* hitzez apaindurik, emazteaz mintzo dela dirudi eta hala dio Oihenart-ek itzulpenean.

542. *Aizez izorra zedina putzez erdi zedin.*

Halaber bertze atsotitz batekin oiloaren metafora dela medio:

568. *Kokodatzez dago eta eztu erruten.*

erran nahi baita: dena espantu eta ezer ez.

- *zikoizkeria*

Bi erran zahar hautatu ditugu, izeba aipatzen dutenak. Dirudienez izeba hori ez da ezkondua eta amak alabari edo semeari aholku bat ematen dio:

349. *Oha eure izebaren etxera,
bana ez maiz sobera.*

Errefrau horren pean badago beldurra. Ez da aise jakitea zer erran nahi duen.

Bertzea, aldiz, ulert erraza da:

589. *Izeba, enea nihaurrentzat,
zurea elgarrentzat.*

Argi dago izeba eta ilobaren arteko eztabaida horretan ilobak nahi duela bereganatu izebaren ontasuna.

- *jeloskeria* (?)

486. *Arreba biz etxea bete.*

Hemen mintzo da anaia, erakusten duela neska gehiegi izateak familia batean dakarren gaitza.

- *bertze akatsak*

Nigar egiten duela nahi duenean, hona emaztearen itxura, aski ezagutua, armarik hoberena duelarik nigarra.

165. *Ezta zer fida zeru izarzuan
ez emazte nigarzuan.*

Mesfidantza osoa beraz holako emazteari buruz.

Gogorrakoak dira frantsesak eta espainolak. Hona zenbait etsenplu:

- *Mujer se queja, mujer se duela, mujer enferma cuando ella quiere.*
- *Las mujeres sin maestro saben llorar, mentir y bailar.*
- *Lágrimas de mujer, lo que no quieren no alcanzan y acaban.*

Frantsesez:

- *A toute heure
Chien pisse et femme pleure.*
- *Femme rit quant elle peut
et pleure quand elle veut.*
- *Pleur de femme crocodile semble.*

Ohoinkeria ez da bakarrik emazteena. Hala ere, Oihenart-ek akats hori dakar 687. atsotitzean.

687. *Konderanak eztu erlerik
eta dago eztiz beterik.*

Konderana Oihenart-ek dioenez emazte izen bat da, eta erraiten du ohoinkeriaz daukala ezta «C'est pour dire que son miel procède de larcin».

Sorginkerietan badabil emaztea gizona baino gehiago. Hori ikusten da literatura guzietan (Celestina da espainol literaturak daukan adibiderik ederrena XV. mendearen bururatzean) eta ere XVII. mendearen hastapenean dauden auzietan Lapurdin, Gipuzkoan, Logroñon.

193. *Gizon bizar peituti
eta emazte bizartzuti
ihes egik nola kotsuti.*

Egia da bitxia dela bizarrik gabeko gizona, emazte itxura har dezakelakotz eta itsusia dela emazte bizarduna. Baina hobeki ulert daiteke atsotitz hau frantses edo espainol errefrau batekin parekatuz:

- *Femme barbue de loing la salue, un bâton à la main.*
- *Mujer barbuda, de lejos me la saluda,
con dos piedras que no con una.*

Izan dadin makilarekin edo harriekin, nahiago du gizonak urrundik ikusi eta frantses erran zaharraren erran nahia azaltzen du Le Roux de Lincy-k: «Ce proverbe fait allusion à la croyance admise pendant le moyen-âge, qu'une femme vieille et barbue était une sorcière».

Kasu eman behar da ere sobera irri egiten duten emazteekin, sobera irri egiteak bertze zerbait salatzen duelakotz:

204. *Gure andrea irrikor izartean gilikor.*

Hala duelarik jitea ez dakit hain fida daitekeen senarra; hala pentsa daiteke «gure andrea» aipatzen delarik euskaraz. Oihenart-ek, aldiz, itzultzen du frantsesera idatziz: «La femme rieuse a la cuisse chatouilleuse».

- *La mujer abrasa en solo ser mirada.*

Bertze parekatze bat da, begiez eginikakoa.

- *emaztea gizonaren galgarri*

Jokoa eta arnoa doatzi emaztearekin gizonaren galtzeko edozein errefrauetan eta hizkuntza gehienetan, Eba-ren alaba delakotz.

195. *Gizon gaztea andrekarri
higa daite esteiari.*

525. *Jokoak, emaztek et'arno onak
dostatzez galtzen tuzte gizonak.*

- *L'on dit par bourgs, villes et villages
Vin et femmes attrapent les plus sages.*
- *Qui hante la femme et le dé
Mourra en pauvreté.*
- *Juegos, pependencias y amores
igualan a los hombres.*

Emagalduek agertzen dira Oihenart-ek bildu atsotitzetan.

400. *Puteki bizitzea da ospitalera abiatzea.*

Miseria, eritasuna lortzen dira orduan, hori da ospitaleak adierazten duena, baina denbora berean emagalduekin ez dabilena ez du dirurik xahutzen anitz irabazten aldiz.

448. *Tusto du irabazten
jokoa eta putak dituenak abazten.*

Aspaldian seigarren manamenduaren kontra dabil gizona, emaztekoa delakotz jitez. Emaztearekin juntatzea ezagutuz gero, ez da aise harenganik urrun-tzea.

474. *Uzki maite, higunt elaiete.*

«Un cul une fois chéri, ne saurait jamais être haï».

Hobeki esplikatzeko, Oihenart-ek eskaintzen du komentario bat: «C'est pour dire que depuis qu'on a pris le plaisir de la chair avec une femme, on ne saurait plus la haïr». Aucuns, au lieu de uzki, c'est-à-dire cul, au Basque disent ister, c'est-à-dire cuisse.

Ez zuen bertzerik erraiten Etxepare-k bere «Emazten fabore» olerkiaren azken bertsoan erakutsi duelarik zer plazera hartzen duen gizonak emaztearekin:

Nor da gizon modorroa hartzaz orhit eztena
Eta gero halakoa gaitz-erraiten duiena?
Ezta gizon naturazko hala egiten duiena
Zeren eztu ezagutzen hala ongi egina?

Metaforaren bitartez erakusten da zein atxikia den gizona, behorraren eta garañoaren bitartez hain zuzen:

76. *Behorraren ustikoak
eztitu sendi garanoak.*

Metafora baliatuz doa bertze atsotitz bat:

356. *Oilar bat aski da oilo hamar baten
hamar gizon ez emazte baten.*

Horrekin emaztea nagusi agertzen da, hamar bat gizon dauzkala bere menean, denak asetzen dituela. Halere, gehiegi zaio Oihenart-i komentario bat egiten duela: «C'est le dire des médisans des femmes qui n'est pas vray parlant généralement».

Emaztea hobendun ala gizona, bederatzigarren manamenduaren kontra doatzilarik:

184. *Gauherdirano bertzeren emazteareki
ba'ere beldurreki.*

Asma daiteke senarra berant sartzen dela, gauherdiraino egoiten ahal baldin-bada amorantea. Bere itzulpenean lanjerra aipatzen du Oihenart-ek eta ez bakarrik beldurra:

561. *Bertzeren emazte duana-gana maite,
oha zeiharbideaz hal'ere lerra aite.*

Hau ere aholku gisa baino gehiago manamendu bat dakar, agintekeran ezarria baita aditza: oha. Kontuz ibili behar dela, kukutuz, nehork ez dezan jakin, bereziki senarrak:

- *Qui aime femme mariée
Sa vie tient empruntée*
dio frantses errefrauak.

Kontuz ibili behar da ere sehi edo zerbitzariekin harreman amultsuak utziz alde batera.

168. *Eure gelaria ez potikeia
hant eztakia alegia hura andregaia.*

amentsetan sartuko baita sehia pentsatuz nagusiarekin ezkont daitekeela.

695. *Eztate ungi zerbitzatu
bere mainatareki nahi duena dostatu.*

Bi atsotitz hauek erakusten dute bakoitzak bere lekuan egon behar duela.

I - 4. Burasoen kezkek beren alabekin

Dirudienez, aitamek semeak maitiago dituzte alabak baino. Ez aise hezteko omen? Ez aise ezkontzeko ere? Ez dezagun ahantz jadanik aipatu dugun atsotitza:

Arreba biz etxea betea.

Zerbait salatzen du. Zer ote? Aitamen kezkek, nesken jite berezia?

16. *Alaba ezkont ezak nahi denean,
semea ordu denean.*

Alabak nahi duenean eta, beraz, berak erabakitzen du noiz ezkonduko den, erran nahi baita noiz aurkituko duen senargaia.

- *La hija a quien la pidiere; y el hijo se ha de mirar a quien se ha de dar.*

Zer nahi gisaz, alaba kanpora doa, aldiz errena sartzen da etxean eta kasu eman behar da nor datorren.

- *Casa el hijo cuando quisieres
y la hija cuando pudieres.*

Atsotitz hau euskal errefrauaren parekoa da.

18. *Alaba zorhi denean ezkontzeko
ezta erratz begiratzeko.*

Bertze erran zahar bildumetan, holako zerbait aurkitzen da: neskek, adinera helduz gero, nahi dutela ezkondu, ezkontzeko errabia daukatela.

- *Filles sottes à marier sont bien pénibles à garder.*
- *Qui a des filles est toujours berger.*
- *C'est un fâcheux troupeau à garder*
Que de sottes filles à marier.

Beraz artzainarena egin behar dute burasoeak, adin batetik harat.

- *Mozas locas y por casar, mal ganado es de guardar.*

Frantsesek espainolek bezala ardiekin parekatzen dituzte neskak, batek artzaina (berger) aipatuz, bertzeak azienda edo kabalak (ganado edo troupeau).

Pollita da alabak amari diotsona:

- *Madre de mi madre*
Guardas me ponéis
Que si yo no me guardo
Mal me guardaréis.

Neskek daukaten ezkontzeko errabia espainol errefrau askotan agertzen da:

- *Madre, casar, casar, que Zarapico me quiere llevar.*
- *Madre casarme quiero, que me lo dijo el tamborilero.*
- *Madre casadme cedo, que se me arrufa el pelo.*

Noiztenka nahi luke hautu eder bat egin neskak. Ametsez bizi da, baina gizongaiak baztertuz ez direlakotz aski haundi, adina pasatzen da, xuritzen biloa:

705. *Zalduna senhar ustean*
zahar nendin ez ustean.

Etxahun Gaztalondoko neskatilez trufatzen zen kantu ezagutu batetan:

Bi berset huntzera nüzü abiatzen
Gaztelondo handiko neskatila gazten.
Hurak nahi dütienez dirade trüfatzen;
Intertan gaxo hurak etxetan zahartzen.

(*Gaztalondoko neskatilak*)

158. *Ez estupa ixindien aldean,*
ez neskatoxea mutil gazteen artean.

Estupa/neska bertzeetan aurkitzen dugu gonparaketa berbera.

- *Ny les estoupes proches aux tisons*
Ny moins les filles pres les barons.
- *Hija después de varon quema como tizon.*

Arriskuak badira beraz eta errefrau horiek adierazten dute sutan sartzen dela neska mutikoekin doalarik. Ez ote du erraiten espainol erran zahar batek:

- *La hembra abrasa en solo ser mirada.*

Estupa eta neskaren arteko gonparaketa aurki daiteke frantsesez eta espainolez errefrau berekin.

- *Fille comme elle est élevée
Et estoupe comme elle est filée.*
- *La moza comme es criada
la estopa como es hilada.*

Bat bertzearen itzulpena da. Nor den lehena ez dugu sekulan jakinen. Bakarrik nabari dena da neskaren jitea edo sexualitatea.

Hori bera ikusten da errefrau honekin:

352. «*Ohapean nago gorderik, enirozu ediren*»
Inhardetsia: «Etzitzaket, ezi enaiz bilha ebiliren».

Eta dio bertzalde Oihenart-ek: «Hauk dira neska baten eta morroin baten arteko hitzak».

Joko berezi bat da, ganbera berean daudela neska eta morroina, zirikatzaile gisa agertzen dela neska. Ez dakit ihardespren bera ukanen zuen bertze batekin.

530. *Seroretara zautan gogoa,
ezteietara aizeak naroa.*

Dio Oihenart-ek itzulpenean: «C'est le discours d'une fille qui feint d'être violente pour le mariage».

Hemen maltzurra da neska: bi ezkontzen artean, Kristorekilakoa (serora) eta gizonakilakoa (ezteiak) berak hautatu du erakutsi nahi duelarik, hitzez dudarik gabe, bortxatua izana dela ezkontzera. Alegia eta egiaren arteko jokoa.

Burasoek daukaten kezka da ezkont ez dadin alaba. Suhiaren beha daude eta beren burua hobeki senditzen dute etorri delarik. Hain zuzen orduan hasten da senargaien proosioa.

17. *Alaba ezkontu ondoan,
ezkont geiak darraizt ondoan.*

Ez dute bertzerik pentsatzen espainolek eta frantsesek.

- *La hija casada salennos yernos.*
- *La hija casada, cien yernos a la puerta a demandarla.*
- *Quand notre fille est mariée, nous trouwons trop de gendres.*

Halere, frantsesek eta espainolek badaukate erran zahar bitxi bat dioena:

- *D'une fille deux gendres.*
- *Casar una hija con dos yernos.*

Correas-ek esplikutzen du: «por querer cumplir en dos partes; o en muchos con una sola cosa».

Pollitagoa da euskarazkoa diogularik: «Harri batez bi xori».

Neska hartzalea arrisku haundietan dabil, hartzeak emateak galdegiten baitu, galdatzeak are gehiago:

332. *Neska hartzen ari dena saldu doa,
galdatzen ari dena da galdua.*

Hala pentsatzen dute gehienek, lerratzeria doala neska, hartzen duelarik eta galdatzen duelarik.

- *La mujer que prende su cuerpo vende.*
- *Femme qui prend elle se vend,
Femme qui donne s'abandonne.*

Heziketa garrantzi haundikoa da; amek hezten dituzte alabak bereziki.

21. *Ama gupidatsuak egidentu haur zakarzuak.*

Honen oihartzunak badaude bertze hizkuntzetan. Espainolez:

- *Madre ardida hace hija tollida.*
- *Madre aguciosa hace hija perezosa.*
- *Madre aguda cria hija tolluda.*
- *Madre acuciosa, hija vagorosa.*
- *Las madres hacendosas hacen las hijas perezosas.*
- *Madre piadosa cria hija merdosa.*
- *La hija de la cabra, que ha de ser sino cabrita?*
- *La hija de la puta como es criada
y la estopa como es hilada.*
- *Put a la madre, puta la hija
y puta la manta que las cobija.*

Frantsesez:

- *De mère piteuse fille teigneuse.*
- *Femme trop piteuse
Rend sa fille teigneuse.*
- *Mère trop piteuse
Fait sa famille teigneuse.*

Ama, beti haur zain dago. Berekin dauka eta haurrak egiten dituenak jasaiten ditu.

222. *Haurreki dena etziten
ezta bethi mantharra xahurik jeikiten.*

Urrunago doa atsotitz hau, erran nahi baitu norbaitek zerbait egiten duelarik eskuak zikintzen dituela (ikus Jean-Paul Sartre-n antzerkia *Les mains sales*).

217. *Haur duenak eztitu boxirik hoberenak.*

Atsotitz honek salatzen du zein ona den ama bere haurarentzat, nola badakien jan gabe egon edo guti janez egon, haurrak aski ukan dezan.

Azken bi erretrauen bilduma daukagu espainol atsotitz batean «harta» eta «limpia» hitzei eskër.

- *La mujer que cría, ni harta ni limpia.*

Bere umeari amak daukan amodioa haurrak salatzen du ederki.

20. *Amak irin balu opil balaidi.*

erran nahi baita amak baduelarik behar dena, gauza onak, opilak, egin litzakeela haurrentzat.

Amatzen delarik emakumea, zer poza denentzat, baina bereziki berarentzat. Hortik dator:

138. *Emerdi oro zoro.*

Pentsa daiteke luze zaiola senarrari, haurra ukanez gero, ohean amak iragaiten duen denbora.

237. *Hileko erdia, hileko eria.*

Ez da hain urrun Correas-ek bildu duena:

- *Mujer se queja, mujer se duele,
mujer enferma cuando ella quiere.*

Hauek ere badute zer ikusirik:

- *La mujer preñada, la fiebre trae en la manga.*
- *La mujer preñe, en todo tiempo teme.*

Honek ere frantsesez, nahiz ez duen erditzea aipatzen:

- *Femme se plaint, femme se deult,
Femme est malade quand elle veut
Et par Sainte-Marie
Quand elle veut elle est guérie.*

Ama hiltzen zelarik, gazte zela oraindik, gehienetan aita ezkontzen zen berriz. Erdi Aroan anitz ziren hiltzen zirenak haur ukaitean. Ama eta amaizuna agertzen zaizkigu euskal atsotitzetan, frantsesez eta espainolez baino gehiago.

22. *Ama sinbets eztezanak, amaizuna.*

Itzulpenak emaiten dio bere erran nahi osoa atsotitzari: «Celui qui n'a voulu obéir à sa mère obéira par force à sa marâtre». Denbora onak iraganak dira, denbora bortitzak dauzka gainean.

23. *Amaizuna, erradan «no»; ez «nabi duna».*

Hor neskek salatzen du amaizunaren maltzurkeria. Jendeen aintzinean erraiten dio «nahi duena» erakutsiz hautua uzten diola, baina izatez ez da hala.

Idea berbera aurkitzen da 240. atsotitzean.

240. *Hiri zionat alaba, adi ezan alabaizuna.*

alaba deitzen duelarik, baina alabaizun gisa tratatzen.

680. *Amaizunari kexua.*

Atsotitz honek erakusten du amaizunari kexua agertzen diona debaldetan ari dela, elkorrena egiten baitu, zer den egiazki amaizuna baitaki.

24. *Amaizuna eztizkoa ere ezta huna.*

Errefrau guti bertze errefrau bildumetan.

- *Madrastra, el nombre la basta.*
- *Madrastra, ni de cera ni de pasta.*
- *Madrastra, madre áspera.*

Frantsesez bat bakarrik:

- *Qui a marastre a le diable en l'astre.*

Argi eta garbi dago euskal gogoetan amaizunak daukala ezin ahantzizko tokia, baliatzen baita metafora gisa tzarraren adierazteko, doalarik ona-ren (ama) aurka.

71. *Batean ama, bertzean amaizun gertatu zait.*

468. *Urte bata da ama, bertzea amaizun.*

533. *Zortzi egunez ama ditu lurrak,
hantik harat amaizun elhurak.*

II - LA PERFECTA CASADA

Gogorki ari balinbadira atsotitzetan emazteen kontra, badira emazteen fabore jokatzeko direnak, emazte ezkonduen kalitateak goraiatzen dituztenak. Adibide on bat emaiten digu Correas-ek:

• *La dama en la calle, grave y honesta; en la iglesia devota y compuesta; en casa escoba, discreta y hacendosa; en el estrado señora; en el campo corza; en la cama graciosa; y será en todo hermosa.*

Kanpotik ohera kalitate guziak dauzka gizonarentzat eta ez da dudarik gizonaren ikuspegitik jukatua dela.

Zer dira beraz kalitate horiek?

- *ontarzunga*

Hartzen dut Oihenart-ek darabilen hitza. Hain zuzen ezkontidearen eta ohaidearen aurkaketa agertzen dute atsotitzek:

351. *Ohaidea onhetsak eder denagati,
ezkontidea bere ontarzunagati.*

Hobe da emazte edo ezkontide on bat, ederra baino, edertasuna doalarik alferkeriarekin. «Eder, auher».

592. *Ezta deuskai edertarzuna
lagun ezpadu ontarzun.*

Ontarzun da, beraz, kalitaterik haundiena, gizonak emazteari galdegiten diona.

Gauza bera derasate bertzeetan ere:

- *La mujer buena de la casa vacía hace llena.*
- *La mujer buena corona es de su marido.*
- *La mujer que es buena, plata es que mucho suena?*
- *Las mujeres buenas no han ojos ni orejas.*
- *Hermosa es la buena mujer.*

Frantsesez:

- *Bonne femme, bon renom
Patrimoine sans parangon.*
- *De bonnes armes est armé
Qui à bonne femme est marié.*
- *Femme bonne vaut une couronne,
Femme de bien vaut un grand bien.*

- *zuhurtzia*

Hemen ere ohaide eta ezkontidearen arteko gonparaketa: ederra bata, zuhurra bertzea.

350. *Ohaidea eder-ariaz,
Ezkontidea zuhur-ariaz.*

Frantsesak ere balio handia emaiten dio zuhurtziari:

- *Femme sage et de façon,
De peu remplit sa maison.*
- *Bien entretiendra sa maison
Cil qui a bonne sage femme,
Mais une folle sans raison
Rend son hôtel tout infame.*

Espainolak berdin:

- *La mujer de buen recado
hinche la casa hasta el tejado.*

- langilea

Dakigularik zenbat eta zenbat erran zahar baden emazte alferren kontra, uler daiteke emazte langileak daukan balioa.

281. *Irunez oihaldun da gur'andrea, ez alfer egonez.*

Alabaina, langile izatea da kalitate haundia, ez bakarrik emakumeentzat, gizonentzat ere. Anitz barkatzen zaie gizonei langileak balinbadira, bereziki laborari etxeetan.

639. *Latsari onari eztakidio falta latsarri.*

Latsariak emazteak izanez, emazteari dagokio atsotitz hau. Langile ona beti ongi tresnatua da.

Aurkako atsotitzek eskaintzen dute langilearen balioa:

- *La mujer que poco hila tarde hace luenga tela.*
- *La mujer que poco hila siempre trae mala camisa.*

Langilea, aldiz, beti prest dago.

- *La mujer aseada, la cama hecha, la cabeza tocada.*

- fidelitatea

42. *Artzainaren emaztea, arratsean eder.*

erran nahi baita bere senarraren zain dagoela eta ederki jaunzten dela haren hartzeko etxeratzen delarik. Baina denbora luzaz mendian delarik artzaina, ez ote da bertze batentzat apaintzen?

Espainolak erran zahar berbera dauka:

- *La mujer del pastor a la noche se compon.*

Mariñelaren emaztea etxean gelditzen da senarraren beha, dakielarik arrisku haunditan dabilela:

286. *Itsasturuaren emaztea goizean senhardun, arratsean alhargun.*

- umiltasuna

Jadanik aipatu izan da:

406. *Senhar duenak jaun du.*

horretan erakustera ematen dela senarraren meneko dela emaztea.

Baina, nahiz ez den euskal erran zaharretan agertzen, badakigu emazteak bere gain daukala etxea eta nagusi gisa dagoela etxe barnean. Aski abila da nahi duenaren egiteko. Hala dio frantses erretrau batek:

- *Ce que femme veut Dieu le veut.*

Emaztearen botereaz diote bertze errefrau espainolek:

- *La mujer y el oro lo pueden todo.*
- *La mujer sea igual o menor
si quiere ser señor.*
- *La mujer compuesta a su marido quita de puerta ajena.*

Azkenean, nor da jaun eta jabe?

- *elgarrekilako amodioa*

Errana da amodioz ezkontzea ez dela gauza ona, laster hozten dela amodioa.

467. *Urthaur dira amorez ezkontzea eta urrikitzea.*

Jadanik aipatu dugu atsotitz hau erakusteko zer ziren ezkontzaren arriskuak.

Halere, bertze erran zahar batzuk aitortzen dute amodiozko ezkontza zoriontsua izan daitekeela.

186. *Gauza onhetsirik ezta onheslearentzat itsusirik.*

Halako duda bat banuen ez jakinez zer erran nahi zuen «gauza» hitzak. Itzulpena argi dago: «Il n'y a point de laides amours pour celuy qui ayme».

Amodioak denak garaitzen ditu.

Frantsesez:

- *Il n'est nulle laide amour ni belle prison.*

310. *Maitatzeak maitatze du hartze.*

Hau da, dudarik gabe, atsotitzetan den ederrena, amodioz betea, elgarrekilako maitasuna gorapatzen duena, bakoitzaren amodioa bertzearenaren iturria delarik.

Maitatzeak mirakuilu haundiak egin ditzake, hala nola bizi guztiko maitasuna.

368. *Onhets nezan gure atsoa
iduri zekidan neskatxoa.*

Amodioz beteak diren bihotzek eta begiek gaztetzen ditu maitatzen den emaztea; zaharra izanagatik beti gazte agertzen da. Maitasunak suntsitzen du denbora.

- *Aymer est doux, non pas amer
Quand est suivi de contre aimer.*

Atsotitz hau pareka daiteke «Maitatzeak maitatze du hartze» delakoarekin, bertzea aldiz honekin:

- *Vieilles amours et vieux tisons
s'allument en toutes saisons.*

Nahiz Oihenart-ek dakarren azken hau:

156. *Ezkontza zaharraz eztei berri egitea.*

Hola doa bizia, amodiozko sua hiltzera doalarik «sü azia» behar dela hauspoz berriz piztu.

AZKEN HITZAK

Aspaldikoak dira erran zaharrak, Erdi Aroan edo lehenago asmatuak, erresuma batetik bertzera doaz, gonparaketak aitortzen duen bezala. Horiek dira gure arbasoen filosofia, berek asmatua edo bertze nonbaitik etorria.

Ez da dudarik gizonek asmatu dituztela. Aski da ikustea nola euskaraz, frantsesez edo espainolez ideia bertsoak agertzen diren eta nola emaztearen kontrakoak aise nasaiagoak diren emaztearen aldekoak baino.

Ebaren alaba da emaztea gizonen gogoetan, Eba bekatorosa, Eba gizonaren galgarri, Eba paradisuaren galtzalea.

Emazte prestuaren itxuri guti agertzen da. Ideia horiek nasaiki barreatuak ziren eta behar ditugu gogoan atxiki nahi balinbadugu hobeki ulertu Etxepareren «Emazten fabore» olerkia.

Gizona emaztearen gaitz-erraila da. Horren kontra joateko gizonaren gain emaiten ditu hobenak. Hastapenetik dio lehen bi neurtitzetan:

«Emaztiak ez gaitz-erran ene amorekatik,
Gizonek utzi balitzate elaidite faltarik.»

Bururutzen du lehen bertsoa erranez:

«Andrek gizoneki bezi hutsik egin daidite»

bakoitzak bere ogena daukala.

Urrunago doa dioelarik:

«Gaixteria jalgiten da bethi gizonetarik.»

Bururatzeko eskaintzen dut 9. bertsoa:

Berthuteak behar luke gizonetan handiago;

Emaztetan nik dakusat hongiz ere gehiago.

Mila gizon gaixtorik da emazte batendako;

Gizon baten mila andre bere fedean dago.

Hau idazten zuelarik XVI. mendean, ez da dudarik Etxepare-k gogoan zuzkala hainbat et hainbat atsotitz emazteen kontrakoak. Hortakotz «Emazten fabore» olerkian ogen gehienak gizonak ditu.

Jean HARITSCHELHARren txostenaren bilduma, frantsesez eta espainolez

L'analyse des proverbes basques, recueillis au xvii^e siècle par Oihenart et se référant à la femme, fait apparaître une double image: celle de la fille d'Eve, dont les défauts et les vices majeurs sont mis en exergue: paresse, libertinage, gourmandise, etc... entraînant ainsi l'homme à sa perte et l'image de la femme parfaite, bonheur du foyer, remplie de qualités: travailleuse, honnête, économe, fidèle et humble. La comparaison avec les proverbes similaires espagnols et français montre une plus grande retenue dans les proverbes basques.

* * *

El análisis de los refranes vascos, recogidos por Oihenart en el siglo xvii y que se refieren a la mujer, deja aparecer una imagen doble: la de la hija de Eva, cuyos defectos y vicios mayores se han puesto de manifiesto: holgazanería, libertinaje, gula, etc... siendo así la perdición de los hombres y la imagen de la perfecta casada, dicha del hogar, llena de cualidades, trabajadora, honesta, ahorradora, fiel y humilde. La comparación con los refranes similares españoles y franceses muestra una mayor moderación en los refranes vascos.